

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Biizkaiko Foru Aldundiaren 142/2019 FORU DEKRETUA, irailaren 17koa. Honen bidez onesten dira Bizkaiko Lurralde Historikoan 2019ko ekainaren 16tik 2020ko ekainaren 15era bitartean egiten diren jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia. Jarduera horiek, dena dela, honako hauek bakarrik izango dira: babes berezia edo ertaina duten ondasun arkeologikoak, edo ustez hondakin arkeologikoak dituzten guneak, edo Eusko Jaurlaritzaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan ondasun babes ertaina edo berezizat kalifikagarri gisa agertzen direnak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz beharrezkoak diren jarduerak.

Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak, 75 artikuluan ezarri du Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, lege horren hirugarren artikuluan aurreikusitako eskumenak baliatuz, euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasunen titularrei laguntza ekonomikoa emateko neurriak arautuko dituzte, lege horretan aurreikusitako betebeharrak —ondasun horiek kontserbatzeari, zaintzeari, haien balioa nabarmentzeari eta zabalkundea emateari dagokienez— bete daitezzen sustatze aldera.

Arau-esparru horren barruan, foru dekretu honek arautzen du nola eman Bizkaiko Lurralde Historikoan 2019ko ekainaren 16tik 2020ko ekainaren 15era bitartean egiten diren jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak, Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 67. artikuluan jasota daudenak, sustatzeko diru-laguntzak; horretarako irizpide nagusiak publikitate, lehia eta objektibotasuna izango dira.

Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 67. artikuluan ezartzen duenez, babes berezia edo ertaina duten kultura-ondasunei eragiten dien edozein obratan proiektu arkeologikoen eta paleontologikoen idazketaren eta beteazpenaren finantzaketa jardueren titularraren kontura izango da, zuzenbide publikoko erakundeak direnean. Baldin eta titularra pribatua bada, kasuan kasuko foru-aldundiak bere gain hartuko du gastuen parte bat laguntzak emanez, edo zuzenean gauzatuko du proiektua, horrela egitea beharrezkotzat joz gero. Foru-aldundia, dena dela, behartuta egongo da jarduera arkeologikoak hartuko duen guztizko kopuruaren %50 ordaintzera.

Azkenik, lege-testu horren 65.2 artikulua zehazten du 67 artikulua aplikatu behar dela, halaber, hondakin arkeologikoak ustez egon daitezkeen alde, orube eta eraikinen kasuan.

Gorago aipatutako maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 67 artikulua ezartzen du artikulua horretan azaldutako jarduera arkeologikoaren %50 ordaindu behar duela Foru Aldundiak; hortaz, legezko betebeharra da. Ondorioz, laguntzak emateko prozedura ez da norgehiagoka izango, ohi den bezala, baizik eta, salbuespen gisa, lehia askea, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluko 3. lerroaldearen arabera. Horrenbestez, diru-laguntzetarako eskaerak —baldin eta eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte— erregistroan aurkeztean izandako hurrenkeraren arabera ebaztiko dira, horretarako ezarrita dagoen epearen barruan.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan, 1998ko maiatzaren 12ko 62/1998 Foru Dekretuak ezartzen du Bizkaian jarduera arkeologikoak egiteko arautegia. Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 27ko 154/2018 Foru Dekretuaren bitartez (ekainaren 18ko 75/2019 Foru Dekretuaren bidez aldatutakoa), diru-laguntza batzuen oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren, Bizkaiko Lurralde Historikoan arkeologia eta paleontologia jarduerak egiteko, 2018ko irailaren 16tik 2019ko ekainaren 15era bitartean, honako kasu hauetan: kalifikatutako eta inbentariatutako gune edo ondasun arkeologikoetan egitea jarduerok, edo ustez arkeologia hondakinak dituzten edo Eusko Jaurlaritzaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan kalifikagarri edo inbentariagarri



gisa agertzen diren ondasunetan, eta nahitaezkoa izatea jarduera horiek egitea, edozein obra motaren ondorioz.

Foru dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek jasota daude Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurreiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko irailaren 17ko bileran aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—Diru-laguntza foralen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea

Bizkaiko Lurralde Historikoan 2019ko ekainaren 16tik 2020ko ekainaren 15era bitartean egiten diren jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emango dituen diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira. Jarduera horiek, dena dela, honako hauek bakarrik izango dira: babes berezia edo ertaina duten ondasun arkeologikoak, edo ustez hondakin arkeologikoak dituzten guneak, edo Eusko Jaurlaritzaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan ondasun babes ertaina edo berezizat kalifikagarri gisa agertzen direnak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz beharrezkoak diren jarduerak. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria.—Diru-laguntzaren xedea

1. Foru dekretu honen arabera, honako jarduera hauek jaso dezakete diru-laguntza:
 - a) Arkeologia eta paleontologiako prospekzioak.
 - b) Kontrol arkeologikoa.
 - c) Arkeologia eta paleontologiako zundaketak.
 - d) Arkeologia eta paleontologiako indusketak.
 - e) Arkeologia eta paleontologiako ikerketak.
2. Diru-laguntza eskatzea eragiten duten proiektuak 2019ko ekainaren 16tik 2020ko ekainaren 15era bitartean egin behar dira.



3. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:
 - a) Bizkaiko Lurralde Historikoa gainditzen duten jarduerak.
 - b) Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65.2 eta 67 artikuluen itzalpean egiten ez diren jarduera arkeologiko eta paleontologikoak.
 - c) Jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak, zeinen finantzazioa eragina duten jarduketan titularrak bere gain hartu beharko duen, zuzenbide publikoko entitateak baitira Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65.2 eta 67. artikuluetan ezarritakoarekin bat.
 - d) Sexua dela eta diskriminatzen duten jarduera edo ekintzak.
4. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-balioa ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Gastu hauek ezin izango dute diru-laguntzarik jaso:

 - a) Ekipo-ondasunak erosteko gastuak, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada jarduerak egiteko dekretu honetan zehaztutako epea baino.
 - b) Banku-kontuetako interes zordunak.
 - c) Interes, errekaratu eta zehapen administratibo eta penalak.
 - d) Prozedura judizialen gastuak.
 - e) BEZa, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola diru-laguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatutako aurrekontuan.
 - f) Oro har, beren-beregi kanpo utzitakoak, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29. artikuluekin bat etorrira.
5. Foru dekretu honen helburua pertsona eta erakunde eskatzaileen ekintzak laguntzea eta osatzea da; ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

2. oinarria. — *Onuradunak*

1. Honako hauek eskura ditzakete foru dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzak: 2019ko ekainaren 16tik 2020ko ekainaren 15era bitartean bitartean diru-laguntza emateko oinarri den esku-hartzea —osorik edo zati batean— egin duten pertsona fisikoak, partaidetzapekoak ez diren enpresak (S.A., S.L., kooperatiba-sozietateak eta sozietate zibilak, Kode Zibilaren 1669. artikuluan jasota daudenak izan ezik, edo bestelakoak) eta enpresaburu edo profesional izaera daukaten pertsona fisikoak, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emanda daudenak, baldin eta ez badaude 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluko egoeretakoren batean ere. Horretarako, eskatzaileek (pertsona juridikoek eta enpresaburuek) egiaztatu behar dute, batetik, jarduera egiteko titulu juridiko egokia eta nahikoa dutela; bestetik, esku-hartzea egiteko behar diren eskuespenak, baimenak eta lizentziak badituztela, eta, azkenik, diru-laguntzen arloko foru arautegiak oro har ezarritako betekizunak betetzen dituztela.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean egiaztatu beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete beharko dira, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.

2. Eskatzailea ez bada esku-hartzea egin nahi den higiezinaren jabea, frogatu beharko du jabeak bertan esku hartzeko baimena eman diola, eta, horretarako, Zuzenbidean onartutako edozein frogabide erabil dezake.

3. Honako hauek ezin izango dute diru-laguntza edo laguntzarik eskatu ez haien onuradun izan, baldin eta:

- a) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan;



- b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira;
- c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluari, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

II. TITULUA**ARAUBIDE JURIDIKOA****3. oinarria. — Araudi aplikagarria**

Dekretu honetan aurrekusi gabeko gaietarako aplikagarriak izango dira Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Araudia, bai eta, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta bere izaeraren zioz aplikagarri izan daitekeen beste edozein xedapen arauemaile ere.

4. oinarria. — Arau-haustek eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluari xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluari xedatutakoa ere.

III. TITULUA**PROZEDURA****5. oinarria. — Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

1. Pertsona fisikoak eta enpresaburu edo profesional diren eta jarduera ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda dauden pertsona fisikoak direnez, eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuan aurkeztu ahal izango dira (María Díaz de Haro kalea, 11, Bilbo), asteleheneetik ostiralera, 8:30etik 13:30era, edo Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Horrez gainera, aukera egongo da eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkezteko <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

2. Partaidetu gabeko enpresen kasuan (sozietate anonimoak, sozietate mugatuak, sozietate kooperatiboak eta sozietate zibilak salbu eta Kode Zibilaren 1669 artikulukoak, eta antzekoak), Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira eskabideak <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

3. Eskabideak aurkezteko epea foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2020ko uztailaren 2an amaituko (egun biak barne).

6. oinarria. — Eskabidearekin batera erantsi behar diren agiriak

1. Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuz gero <https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>, egoitzan egongo dira eskuragarri eskabidearen eredu espezifikoak, bete eta aurkeztu ahal izateko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.



Gainerako kasuetan, diru-laguntzetarako eskabideak foru-dekretu honen I. inprimaki gisa atxikitako eredu ofiziala (E1 eredua) erabilia aurkeztuko dira, II. inprimakiarekin batera (E3 eredua); helbide honetan eskura daitezke inprimakiok: <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>

2. Kasu bietan, eskabideekin batera dokumentazio orokorra eta hurrengo ataletan eskatutako dokumentazio berezia aurkeztu beharko da, eskatzaileak berak edo eskatzailearen ordezkariak sinatuta.

- a) Interesdunak legezko nahiz borondatezko ordezkari bidez jarduten duenean, ordezkapena egiaztatu beharko da, Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabilia.
- b) Bankuko helbideratze fitxa, alta eman edo aldaketaren bat egin nahi den kasuetan bakarrik.
- c) Horrela badagokio, eskatzailearen IFZren kopia.
- d) Horrela badagokio, sozietatearen eraketa-eskrituren eta estatutuen kopia, eta erakundearen izaerari dagokion erregistro publikoko inskripzioa. Administrazioak dagoeneko baditu agiri horiek, adierazi behar da zein espedientetan dauden eta Administrazioak dituenetik hona zein aldaketa izan duten.
- e) Diru-laguntzaren xede den esku-hartzea egingo den higiezinaren jabetza-titularen kopia (eskriturak, Jabetza Erregistroaren ohar soila edo ziurtagiria). Eskatzailea higiezinaren jabea ez bada, titularrak esku-hartzea egiteko eman duen baimena aurkeztu beharko du ere. Eskatzailea higiezinaren jabea bada, diru-laguntzarako eskabidearekin batera gainerako jabeakideak bat datozela eta baimena eman dutela adierazten duen agiria aurkeztu behar du, baita daukan partaidetza-portzentajea ere.
- f) Esku-hartzeak Jabetza Horizontaleko Erregimenean sartutako ondasunetan egiten badira, eskabide bakoitzarekin batera, esku-hartzerako baimena ematen duen jabeakideen elkargoaren erabakia aurkeztu beharko da, eskatzaileak higiezinaren partaidetza-portzentajea adierazita.
- g) Eskatzaileak esku-hartzea egin ahal izateko behar diren eskuespenak, lizentziak eta baimenak lortu dituela egiaztatzeke agiria. Edonola ere, Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak aipatzen dituen baimenak egiaztatu beharko dira.
- h) Esku-hartze arkeologikoari buruzko aurretiazko txostena edo emaitzen memoria, esku-hartzearen ardura duen arkeologoak prestatutakoa, maiatzaren 12ko 62/1998 Foru Dekretuaren 11.6 artikuluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horrek ezartzen du, hain zuzen, Bizkaian jarduera arkeologikoak egiteko arautegia.
- i) Gastuen frogagiriak edo fotokopiak; frogagiri horiek izango dira aurrekontu araztuaren kontzeptuei buruzkoak. Aurkeztuko diren frogagiri eta faktura guztien zerrenda ere ekarri beharko da, zenbatekoa eta aurrekontuaren zein atali dagokien zehaztuta.
- j) Diruz lagundutako jarduerari edo zerbitzuari dagozkion diru-sarrera eta gastuen behin betiko zerrenda xehatua, eskuragarri dagoen dokumentuaren arabera.

3. Kasu bietan, Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskabidearen sinatzailearen identitateari buruzko datuak.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titulartasun-datuak, bai eta EJZren zer epigrafetan dagoen alta emanda egiaztatuko ditu (enpresaburu edo profesional diren pertsona fisikoak badira), betiere eskatzaileek berariaz uko egiten ez badiote horri.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta



Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

4. Horrez gainera, eskabidea sinatuta baimena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako, betiere eskatzailea Bizkaiko Lurralde Historikoan errol-datuta badago edo egoitza bertan badu. Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo errol-datuta dauden edo bertan egoitza ez duten eskatzaileek dagokien Ogasuneko ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

7. oinarria. — Eskabideak zuzentzea eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo horiek ez badute foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat, orduan interesdunari agindeia egingo zaio, hamar (10) egun baliouduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

8. oinarria. — Diru-laguntzak emateko araubidea

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru-araua 20. artikularen 1. zenbakiaren bat, diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka araubidearen arabera izapidetuko da.

Edonola ere, arau horretan hau ezartzen da: salbuespen modura, diru-laguntzaren helburu edo izaeragatik ezinezkoa bada prozedura norgehiagokaren bitartez izapidetzea, norgehiagokarik gabekoa izango da diru-laguntzak emateko prozedura, eta, beraz, eskabideak jaso ahala banatuko dira funtsak —betiere eskabideok deialdian ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte— harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65.2 eta 67. artikuluek ezartzen dute artikuluan horietan azaldutako jarduera arkeologikoaren %50 ordaindu behar duela Foru Aldundiak; hortaz, legezko betebeharra da. Ondorioz, laguntzak emateko prozedura ez da norgehiagoka izango, ohi den bezala, baizik eta, salbuespen gisa, lehia askea, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluko 3. lerroaldearen arabera.

9. oinarria. — Diru-laguntzak emateko irizpideak

1. Diru-laguntza emateko, espedientean egiaztatuta geratu behar da, batetik, eskatzaileak onuradun izateko betekizunak betetzen dituela, eta, bestetik, dagoeneko eginda dagoen jarduera diru-laguntza jaso dezaketenen artean dagoela.

Aurreko hori egiaztatu ondoren, diru-laguntzak emango dira.

2. Diru-laguntzaren zenbatekoa egindako jardueraren gastuen arabera zehaztuko da, BEZa kanpo utzita, salbu persona fisikoak diren eskatzaileen kasuan.

3. Proiektua eta aurrekontua benetan diru-laguntza jaso dezaketen jarduerari dagozkiela egiaztatu ondoren, eta, behar izanez gero, zenbatu behar ez diren gaitza kendu ondoren eta dagozkion zuzenketak eta doikuntzak egin ondoren, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da; zenbateko horrek ezin izango du inoiz honako kopuru hauek txikiena gainditu:

- a) Aurkeztutako gastuen %50, baldin eta jarduera horiek beharrezkoak badira edo babes ertaina edo berezia duten gune edo ondasun arkeologikoak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz, edo ustez hondakin arkeologikoak dituzten gune, orube edo eraikinak zein Eusko Jaurlaritzaren Kultura Zuzendaritza Nagusiaren artxiboetan ondasun babes ertaina edo berezizat kalifikagarri gisa agertzen direnak ukitzen dituen edozein obra motaren ondorioz.



- b) Eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa; hala ere, beste diru-laguntza batzuk ere batera jasoz gero, berariaz ezarritakoa aplikatuko da.
4. Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste diru-laguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du inoiz gainditu onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua.

10. oinarria. — Aholkularitza

Foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Kultura, Euskara eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webean: <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileOndarea>

11. oinarria. — Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4 artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena emango eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Kultura Ondarearen Zerbitzuak eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko du. Horren egiaztapena egin ondoren, eskatzailearen batek betebeharrak horietako bat, edozein, ez duela betetzen ikusten bada, agindeia egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio hori egiten ez badu bere eskabidean atzera egindakotzat joko dela.

3. Eskabide bakoitzeko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru (3) hilabete izango da, eskabide bakoitza aurkezten den egunetik zenbatuta.

Ebazpena Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak emango du Kultura zuzendari nagusiak egindako proposamena kontuan hartuta, Kultura Ondarearen Zerbitzuak txostena eman ondoren.

Epe hori igaro eta ez bada eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eta jakinarazpenik eman, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago berariazko ebazpena eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua pertsona edo enpresa interesdunari jakinaraziko zaio, posta ziurtatuaren bidez, salbu eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu dutenei, egoitza elektronikoen agertzeko sistemaren bidez jakinaraziko baitzaie. Foru agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak errekurso hauek jar ditzakeela: foru aginduaren aurka aukerako berraztertze-errekursoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andre txit argiaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekursoa, bi hilabeteko (2) epearen barruan, goiko era berean zenbaturik.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, urtero, iragarki bat jarriko du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, deialdi publiko honetan aurkeztu eta ebatzi diren eskabideen berri emateko.

12. oinarria. — Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

1. Foru dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatzen bada, bereziki maiatzaren 9ko 6/2019 Euskal Kultur Ondareari buruzko aipatu baimenaren ondoriozko betebeharrak betetzeari buruzkoak, eta betiere estatuko edo atzerriko beste administrazio batek edo erakunde publiko zein pribatu batek aldi berean beste diru-la-



guntza edo laguntzaren bat emanaz gero, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakkarik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda, inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Foru dekretu honetan jasotako diru-laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Araudian xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (352. zenbakian), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Honen ondorioz, araudi hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, emandako minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

IV. TITULUA

DIRU-LAGUNTZAREN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

13. oinarria. — Diru-laguntza ordaintzea

1. Diru-laguntza ebazten duen foru aginduaren jakinarazpena jaso eta ondorengo 10 egun baliodunetan pertsona edo entitate onuradunak ez badio beren-beregi eta idatziz uko egiten diru-laguntzari, onartu egin duela ulertuko da. Ebazpen hori jakinarazi ondoren 10 egun igaro eta berehala, Kultura Ondarearen Zerbitzuak diru-laguntzari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta pertsona edo entitate onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntza ordaindu aurretik, egiaztatu egingo da onuradunek egunean dituztela hala zerga betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak.

Egiaztatzearen ondorioz ikusiko balitz onuradunen batek ez duela aurreko lerroaldean ezarritakoa betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori konpon dezan, eta jakinaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako diru-laguntzarako eskubidea galduko duela.

14. oinarria. — Diru-laguntza onuradunaren borondatez itzultzea

1. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen diru-laguntzen araudia onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikulua ezartzen duenarekin bat eginez, onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza itzultzea erabaki dezake erakunde horrek aurretik eskatu ez badio ere. Kasu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntzaren itzulketa egin arteko berandutze-interesak kalkulatu ditu, aipatutako 76. artikuluan xedatzen denarekin eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

2. Onuradunak berak eskatuta foru diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kultura Ondarearen zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginda.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean egin dezake ordainketa. Ordaindu eta gero, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Kultura Ondarearen Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru zerbitzuari.

15. oinarria. — Diru-laguntzaren pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak

Foru dekretu honen bitartez araupetutako diru-laguntzen pertsona edo entitate onuradunek, honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

- a) Jarduera gauzatu.
- b) Laguntza ematen duen erakundeari jakinaraztea ea baden beste udalerrri, autonomia-erkidego, estatu edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde



- publikoren batek xede bererako emandako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabiderik.
- c) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailarekin elkarlanean jardutea, hala egitea eskatzen denean, eta egin beharreko proiektuaren gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab...).
- d) Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jardueren menpe jartzea.
- e) Diru-laguntza eman ondoren hedatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerrarazi beharko da; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudian ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz: «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».
- Jarduerak justifikatzeko memorian, argazki bidez edo beste erreprodukzio-bide baten bidez egiaztatu beharko da nola zabaldu den publikoki Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako esku-hartzeari emandako laguntza.
- f) Dohainik eta eskusibitaterik gabe, higiezinaren irudi grafikoa eta aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio teknikoa erabiltzen utziko dio Bizkaiko Foru Aldundiari, zabalteko edo/eta argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko, informatiko edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz.
- g) Deialdi honi dagokionez, foru diru-laguntza baten onuradunek nahitaez bete behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduaren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak. Azpikontratazioak egiteko gehieneko portzentaje bat egongo da: diruz lagundu den jardueraren zenbatekoaren %90.
- h) Onuradunaren izaera dela-eta ezarri behar bazaizkio, betebeharrak hauek:
- 1) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkartzean eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
 - 2) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
 - 3) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua jasotzen dituen printzipio nagusiak gordetzea, eta bereziki ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan).
 - 4) 250 langiletik gora izanez gero, egiaztatu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, onuradunak betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du justifikazioarekin batera.



- 5) Plantillan hamabost langiletik gora izanez gero, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko. Horretarako, onuradunak betebehar hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du justifikazioarekin batera.
- i) Bizkaiko Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

16. oinarria. — Itzultzea

1. Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako bete-beharretariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- a) Justifikatu beharreko guztia justifikatzen ez bada.
- b) Emandako diru-laguntzari dagokion helburua betetzen ez bada.
- c) Diru-laguntza justifikatzen ez bada edo foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den diru-laguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuak eskaera egin ondoren.
- d) Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- e) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.
- f) Foru dekretu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

2. Diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantziario gehiago jasotzen bada, diru-laguntza itzuli beharko da.

17. oinarria. — Aurrekontuko partida

1. Deialdi honetan araututako diru-laguntzen zenbatekoa, guztira, hirurogei mila euro (60.000 euro) da, eta honela banatuko da:

- a) Hogeita hamar mila euro (30.000 euro), 0404 G/336107/46999/0000 2007/0155 aurrekontu-partidaren kargura, pertsona fisikoei, diru-laguntzak emateko, urteko hauetan banatuta:
 - 2019. urtekoa: 10.000 euro.
 - 2020. urtekoa: 20.000 euro.
- b) Hogeita hamar mila euro (30.000 euro), 0404 G/336107/44300/0000 2007/0155 aurrekontu-partidaren kargura, partaidetzarik ez duten enpresei (S.A., S.L., kooperatiba-sozietateak eta sozietate zibilak, Kode Zibilaren 1669. artikuluan jasota daudenak izan ezik), bai eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan enpresaburu eta profesional gisa alta emanda dauden pertsona fisikoei diru-laguntzak emateko, urteko hauetan banatuta:
 - 2019. urtekoa: 10.000 euro.
 - 2020. urtekoa: 20.000 euro.

2. Eskaera guztiak ebatzi ondoren, emandako diru-laguntza aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimena deuseztatzea izapidetuko litzateke, soberan den zenbatekoan.



AZKEN XEDAPENAK

Amaierako Lehen Xedapena.— *Arauk emateko gaikuntza*

Ahalmena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Amaierako Bigarren Xedapena.— *Indarrean jartzea*

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko irailaren 17an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ